



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2013KO EKAINAREN 14KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2013.06.14.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.
Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Felix Vergara Elizondo jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Larretako alderdiko katastroko aldaketari buruz.
- 4.-Pelle-ttiki eskola.
- 5.-EH-Bilduko balantzea.
- 6.-Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bilera.
- 7.-Helduei zuzendatutako ikastaroak.
- 8.-Javier Larretxea jauna, Ana Lukanbio andrea eta Juan Angel Lukanbio jauna: katastroa aldatzeko eskaera.
- 9.-Eszendentziari buruzko mozioa.
- 10.-Gamazada: diru laguntza eskaera.
- 11.-Abiadura Handiko Trenari buruzko mozioa.
- 12.-Harrera elkarte: diru laguntza eskaera.
- 13.-Herritarrei harrera emateko bulegoen hitzarmena.
- 14.-Estitxu Iparragirre andrearen idatzia.
- 15.-Alkatearen ebazpenak.
- 16.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2013ko maiatzaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-FELIX VERGARA ELIZONDO JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Felix Vergara Elizondo jaunak Trapazelai eta Itolatza alderdian pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 3. poligonoko 42. lur zatian, 4. poligonoko 175. lur zatian eta 2. poligonoko 277. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Felix Vergara Elizondo jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea eta mendizainari probetxamenduaren balorazioa egiteko eskatzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-LARRETAKO ALDERDIKO KATASTROKO ALDAKETARI BURUZ.

Arantzako Udalak, 2008ko uztailaren 2an egindako bileran, behin betikoz onartu zuen Xabier Alzuri Apezetxea, Pilar Larrechea Errandonea eta Juana María Larralde Ibarrola jaunandreek sustatutako lur urbanizagarria sektorizatua den S2-AR2ko UE1 unitatearen birzatiaketa proiektua eta trukaketa espedientea, 2008ko ekainaren 13ko testu bateratuaren arabera.

Ikusirik TRACASA enpresak bere momentuan prestatutako aldaketaren proposamenaren dokumentazio guztia.

Kontuan hartuz TRACASA enpresak prestatutako aldaketa ez dela gauzatu.

Kontutan hartuz Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 31. eta ondorengo artikuluek ezarritakoa.

Kontutan hartuz Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legearen 69 eta 70. artikuluek ezarritakoa.

Kontuan hartuz aldaketak ukitzen dituen lur zatiak hauek direla: 5. poligonoko 557, 558, 597, 598, 599, 605, 606, 607, 608, 609, 610, 611, 613, 614, 722, 736, 737, 749, 911, 939, 940, 941 lur zatiak.

Kontuan hartuz jabe batzuk sinatu dutela aldaketa egiteko baimena baino ez denak.

Arantzako Alkateak ebatzi zuen, 2012ko ekainaren 7ko 52. ebazpenaren bidez, 5. poligonoko 605. lur zatiaren jabeari aldaketaren berri ematea eta aldaketa ukitutako titularrari aldatu nahi den lur zatiaren jabetza tituluak aurkezteko eskatzea, jakinarazpena hau hartu eta hilabeteko epean eta entzunaldia ematea eskatzen den aldaketaren gainean duen iritzia argi eta garbi eman dezan.

Halaber, Arantzako Udalak bidali zuen espedientea Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Erregistroari, 2006ko azaroaren 21eko 12. Foru legearen 31.6. artikulua arabera, Nafarroako Zerga Ogasunaren txosten es loteslea eskatuz.

Ikusirik Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Erregistroak bidalitako idatzia, 5. poligonoko 560. eta 605. lur zatiaren artean katastroan agertzen den bidari buruz.

Nafarroako Administrazio Lokalari buruzko 6/1990 Foru Legearen 114. artikulua arabera.

280/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa, Nafarroako Entitate Lokalen Ondasun arautegia onesten duena ikusirik, eta konkretuki, 47. eta ondorengo artikuluen arabera.

Ikusirik lanen aurrekontua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

1) Goemendi S.L. enpresak emandako aurrekontua onartzea (302,50 euro, BEZ barne) bidea errekueratzeko lanak hasteko.

Koldobike Gorostiza andrea eta Jose Ignacio Madariaga jaunak ateri dira bilera aretotik.

4.-PELLE-TTIKI ESKOLA.

Ikusirik Amaia Apaolaza andreak aurkeztutako idatzia, Pelle-ttikiko ordutegia luzatzeko eskatuz familia eta lana uztartzeko aukera emanez gurasoei.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaia aztertzea, beti ere zerbitzu hori luzatzeko eta arratsalde ere emateko, gutxienez 3 haur izena emanez gero (preziosa bikoitza izanik kasu horretan, 260,00 euro).

Koldobike Gorostiza andrea eta Jose Ignacio Madariaga jaunak bueltatu dira bilera aretora.

5.-EH-BILDUKO BALANTZEA.

Ikusirik EH-Bilduk eskatutako balantzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udaleko Batzorde bakoitzaren balantzea prestatzea uztailearen 12rako.

6.-BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEKO BILERA.

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Batzarrak 2013ko ekainaren 5ean egindako bileran aztertutako gaiak hauek izan dira, bertzeak bertze:

1.-Nafarroako Gobernuak onartu du 19/2013 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeko. Mankomunitatean prozesu hori burutzeko beharrezkoa da estatutuaren 30. artikulua aldatzea, Mankomunitateko langileak funtzionario bihurtzea debekatzen duelako.

2.-Aurtengo babesturiko giza lanen proiekturako emandako diru laguntza bakarrik 4 langile kontratatzeke aukera ematen du.

3.-Berdintasun Batzordeak proposatu du puntu lila jartzea, bortizkeria sexistaren aurka, indarkeriaren kontra eta berdintasunaren aldeko sinboloa bezala, eta mozioa ere onartzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berria abian jartzeari buruzko Mankomunitatearen estatutuan 30. artikulua aldatzea onartzea.

2) 2013ko babesturiko giza enpleguaren proiektuan 5 langile parte hartzea proposatzea, 4 langile diru laguntzarekin eta beste langile bat udal guztien artean.

3) Berdintasun Batzordeak proposatutako puntu lilaren mozioa onartzea.

7.-HELDUEI ZUZENDATUTAKO IKASTAROAK.

Ikusirik helduei zuzendutako ikastaroak eman nahi direla Bortzirietan (alfabetizazioa, oinarrizko ikaskuntza, langabezia daudenentzat prestakuntza).

Kontuan hartuz hori orain Iruñean eta Tuteran bakarrik ematen direla orain.

Kontuan hartuz ikasle kopuruaren arabera taldea sortu (20-22 ikasle) eta irakaslea mugitzen dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako proposamena onartzea.

8.-JAVIER LARRETXE JAUNA, ANA LUKANBIO ANDREA ETA JUAN ANGEL LUKANBIO JAUNA: KATASTROA ALDATZEKO ESKAERA.

Gai hau mahai gainean utzi da Mendiko Batzordeak aztertzeko.

9.-ESZEDENTZIARI BURUZKO MOZIOA.

2012ko ekainaren 12an argitaratu zen 233/2012 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik diru-laguntzak ordaintzeko deialdiaren oinarriak onesten ditu, zeinari esker 396,31 euro jasoko baitzuten hilero diru-laguntzaren familia onuradunek.

Foru Agindua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta astebetara, Gobernuak blokeatu egin zuen kontusaila, zeina gero jaitsi egin baitzen, halako moduan non 400 familia baino gehiagori ukatu baitzaie laguntza.

Egoera horren aurrean,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Gobernuari eskatzea konponbide positibo bat ematea gai honi, deialdi berri bat egin baino lehen, laguntza ukatu zaien familia guztiei, ordainketa osorik egitea ahalbidetuko duen modu bat bilatuta.

2) Nafarroako Gobernuari eskatzea premiatzen den eszedentziagatik laguntza ekonomikoaren jarraitasuna ziurta dezan, langileen familia eta lana bateragarri egiteko, eta Nafarroako familia guztietako jaiotze-tasa igotzeko, neurri osagarri gisa.

10.-GAMAZADA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik 1512-2022 Nafarroa Bizirik ekimenak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Gamazadan gertatutakoa biltzeko egin nahi den liburua finantziatzeko.

Kontuan hartuz 2013ko aurrekontuan ez dagoela partidarik horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako eskaera ez onartzea.

11.-ABIADURA HANDIKO TRENARI BURUZKO MOZIOA.

Ikusirik Abiadura Handiko trenari buruzko mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Abiadura Handiko Trenaren inguruko lanak eta tramite guztiak berehala gelditzea eta trenaren inguruko benetako eztabaida zabala eta partehartzailea abian jartzea eskatzea.

2) Abiadura Handiko Trenara bideratu duten dirutza hori herritarren enplegu eskubidea bermatzeko eta ongizaterako oinarrikoak diren beharrak eta zerbitzu publikoak estaltzeko erabiltzea eskatzea. Ildo honetan, Nafarroako udalen finantziario sistema eskasari eta hauek eskaintzen dituzten zerbitzuei Nafarroako Gobernuak etengabeko murrizketak ezartzen dizkionean, Nafarroako toki entitateek dituzten beharrei ere irtenbidea eskaintzea eskatzea.

3) Ingurumen aldetik egin diren kalteak ebaluatzeko mekanismoak abiarazi eta eragindako kalteei aurre egiteko behar diren baliabideak egokitzea.

4) Mozio hau Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioari eta hedabideei bidaltzea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

12.-HARRERA ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Harrera Elkarteak aurkeztutako idatzia eta diru laguntza eskaera, gatazka politikoaren ondorioak diren preso eta errefuxiatu ohiei hasierako harrera emateko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Harrera Elkarteari 100,00 euroko diru laguntza ematea.

13.-HERRITARREI HARRERA EMATEKO BULEGOEN HITZARMENA.

Aztertu da Nafarroako Foru Komunitatean herritarrentzako arreta bulego integratuen sarea ezartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin sinatu den esparru-hitzarmena.

Orain aukera eman da udalara ere atxikitzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Estatuko Administrazio Orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako lurraldean herritarrentzako arreta gune komun en sarea ezartzeko sinatu duten hitzarmenari atxikitzeko eskatzea. Hitzarmen hori 2011ko martxoaren 18ko 54. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

14.-ESTITXU IPARRAGIRRE ANDREAREN IDATZIA.

Ikusirik Estitxu iparragirre andreak aurkeztutako idatzia medikuaren etxeko bizitzaren ateen eta leihoak dauden egoeran ikusita neurriak hartzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Etxearen egoera zinegotziek aztertzea.
- 2) Nasuvinsa enpresari leihoak eta atea aldatzeko diru laguntzei buruz informazioa eskatzea.

15.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 27tik 43 arte).

16.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

17.-NAFARROAKO TOKI-ENTITATEEN MAPA EGOKITZEKO AKORDIO PROPOSAMENA.

Azkeneko hilabeteotan Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru legerako Proiektua bideratu da, hizkera kolokialean gure erkidegoko Tokiko mapa izenaz ezagutzen duguna.

Lege horrek Kontzejuentzat eta udalentsat duen garrantzia kontuan izanda, logikaz eta demokratikoki jokatzuz gero toki entitateek aktiboki parte hartzeko aukera izan beharko lukete Tokiko Maparen izaera aldatuko lukeen eta, besteak beste, udalak eta kontzejuak desagertzera behartu litzakeen prozesu horretan.

Prozesu horretan zehar Nafarroako Gobernuak ez du toki entitateekin harremanik izan parte hartzea bideratu eta bere proiektua zehazteko. Tokiko mapa egokitu bada, egunez egun udalerrietako herritarrei zerbitzu hurbilak ematen eta zerbitzu horiek finantzatzen ahalegintzen direnek parte hartu behar dute lan horretan. Mapa hori, ordea, zerbitzuak zentralizatuz eta, horrenbestez, herrietatik urrunduz antolatu da, horrek ekarriko lukeen

zerbitzuen merkatzeaz argudiorik eman gabe, ezta toki entitateen eskumenez ere, edo horiek eman beharreko zerbitzuez. Ez da inon agertzen, bestalde, Nafarroako Gobernuaren konpromisoa Nafarroan bizi garen guztiok jaso behar ditugun oinarrizko zerbitzuak finantzatzeko.

Testuinguru horretan Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak bere gain hartu zuen Nafarroako Gobernuarekin solaskide izatekoa ardura, baina ez zuen parte-hartzeko biderik ezarri udalen antolamenduaren egoeraz balorazio hurbilago era errealago bat egin ahal izateko eta Nafarroako toki entitateen kezkak eta beharrak modu eraginkor batean azaldu ahal izateko. Ez zuen eztabaidatzeko gunerik eratu, ez zuen Nafarroako lurralde ezberdinetako errealitateen araberrako lantalderik osatu (eskualdeka), eta ez zuen bilerarik antolatu udalerrietako ordezkariari lege berria eta lege horrek Udaletan eta Kontzejuetan izanen lituzkeen ondorioak azaltzeko.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak proposatutako Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legerako Proiektua dela eta, NUKFek horren aldeko iritzia eman zuen.

Egoera horren aurrean, gai honetan toki entitateen parte-hartzea bultzatzea zezala NUKFri zenbait aldiz eskatu ondoren, eta baiezkorik jaso ez zenez, maiatzaren 9an Nafarroako udalen eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan batzarra deitzeko eskaera bat entregatu zen, gai zerrenda barne, 63 udalek eta 61 kontzejuak babestuta, batzarra egin dadin estatutuek eskatzen duten era.

Inork ez du zalantzan jartzen Nafarroako erakundeen antolamendua aldatzeko prozesu bati ekin beharra, baina indartzeko izan dadila, toki entitateek finantziario handiagoa, eskumen gehiago eta autonomia handiagoa behar dituztelako. Toki entitateen parte-hartze zuzenarekin eta errealarekin ekin beharko zaio eztabaida horri eta hortik aterako den erabakiari.

Egoera honen aurrean, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioan duen ordezkariari mandatua ematea Aparteko Batzar orokorra eskatu duten Toki Entitateek egindako proposamenen aldeko botoa eman dezan, eta gai honen inguruan NUKFren beraren Zuzendaritzak duen jarreraren aurkako botoa eman dezan (Federazioak laster egingen duen Batzarrean).

2) Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioan duen ordezkariari mandatua ematea Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Legerako Proiektuaren aurkako botoa eman dezan.

3) Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioan duen ordezkariari mandatua ematea parte-hartzeko bideak ezar daitezela eska dezan, bertan proposamen ezberdinak azter daitezzen, toki entitateen ekarpenak parteka daitezzen, eta legearen alderdirik garrantzitsuenetan (finantziarioa, eskumenak eta zerbitzuak) sakonduko duten lantaldeak osa daitezzen.

4) Foro horretan, Udalak eta Kontzejuak desagertzea inolaz ere ontzat joko ez duen lege proiektu bat defendatzea.

18.-IGANTZIKO IGERILEKUAK.

Igantzikoko Udalak kopuru desberdinak ditu Igantzin erroldatuak daudenentzat eta kanpotarrentzat.

2012ko urtean Arantzako Udalak 1.000,00 euro ordaindu zion Igantziko Udalarari aranztarrei Igantzin erroldatuak diren bezala kobratzeko.

Ander Almandoz Indakoetxea jauna ez da ados agertu diru laguntza edo ordainketa hori egiteko.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Gainerako zinegotzien aldeko botoekin, ERABAKI DUTE:

1) 1.000 euro ordaintzea Igantziko Udalari, Arantzako herritarrek Igantziko herritarrek ordaintzen duten prezio bera kobratzeko baldintza pean.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



